


Lehen Hezkuntzako Gradua

2017/2018 ikasturtea



IRUDIEKIN SOLASEAN

Edukomunikazioa Lehen Hezkuntzan
Pentsamendu Kritikoa Garatzeko

Egilea: Paul Irazabal Ormaza

Zuzendaria: Miriam Peña Zabala



Leioan, 2018ko maiatzaren 28an

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala.....	4
1.1. Ikusentzunezkoak eta curriculuma	4
1.2. Alfabetatze audiobisuala eta mediatikoa	5
1.2.1. Gazteen alfabetatze audiobisualaren eta mediatikoaren egoera.....	6
1.3. Ikusentzunezkoen dimentsioak.....	7
1.3.1. Arreta ideologia eta baloreen dimentsioan	8
1.4. Edukomunikazioa	9
1.4.1. Irudi mediatikoak edukomunikazioan.....	10
1.5. Edukomunikazioa hezkuntza estrategia moduan	11
1.5.1. Arte Hezkuntzak zereginik badu	13
2. Metodologia.....	14
2.1. Zergaitik esku-hartzea.....	14
2.2. Tresna	15
2.3. Lagina	16
3. Lanaren garapena	17
3.1. Hipotesia	17
3.2. Helburuak.....	17
3.3. Faseak	17
3.3.1. I FASEA: Behaketa	18
3.3.2. II FASEA: Esku-hartzea. Edukomunikazioan oinarritutako elkarrizketa dialogikoa ...	19
4. Emaitzak.....	20
5. Ondorioak	25
6. Erreferentzia bibliografikoak	26
7. Eranskinak	29
7.1. Eranskina. Irudiekin solasean: <i>Power pointa</i>	29
7.2. Eranskina. Galdera irekiak.....	50

IRUDIEKIN SOLASEAN

Edukomunikazioa Lehen Hezkuntzan Pentsamendu Kritikoa Garatzeko

Paul Irazabal Ormaza
UPV/EHU

Irudi eta soinu mediatikoez adierazten dutena baino haratago doazen mezuak daramatzate inplizituki eta edonolako interes politiko, kultural, ekonomiko zein sozialak zabaltzeko diseinatuak daude. Lehen Hezkuntzan mezu horien irakurketa sakonago bat egiteko eta alfabetatze mediatikoaren inguruan pentsamendu kritikoa garatzeko, edukomunikazioan murgiltzeko beharrezana ikusten da. Horretarako, edukomunikazioan oinarrituta, irudi mediatikoen eta ikasleen arteko elkarrizketa dialogiko bat sustatu da, esku-hartzearen abiapuntua behaketa bat izanik ikasleen interesen inguruan solasean aritzeko. Emaitzetatik ondorioztatu da edukomunikazioak laguntzen duela jarrera kritiko bat aurkezten komunikabideetako ikusentzunezko mezu inplizituen aurrean.

Edukomunikazioa, elkarrizketa dialogikoa, pentsamendu kritikoa, Lehen Hezkuntza

Las imágenes y sonidos mediáticos llevan mensajes implícitos que van más allá de su apariencia y han sido diseñados para propagar diferentes intereses tanto políticos, culturales, económicos como sociales. Se ve la necesidad de zambullirse en la educomunicación para hacer una lectura más profunda de esos mensajes en Educación Primaria y desarrollar el pensamiento crítico en torno a la alfabetización mediática. Para ello, se ha promovido una conversación dialógica, basada en la educomunicación, entre imágenes mediáticas y las/los alumnas/os, partiendo la intervención de una observación para poder conversar alrededor de los intereses de las/los alumnas/os. De los resultados se desprende que la educomunicación ayuda a mostrar una postura crítica frente a los mensajes audiovisuales implícitos de los medios de comunicación.

Educomunicación, conversación dialógica, pensamiento crítico, Educación Primaria

Mediatic images and sounds take implicit messages which go beyond their appearance and are designed to spread either political, cultural, economical or social interests. The necessity is seen to plunge into the educommunication to make a deeper reading of those messages in Primary Education and to develop the critical thought around the media literacy. For it, a dialogic conversation by means of educommunication between mediatic images and the students has been promoted, being the departure point of the intervention an observation that allows to talk about the interests of the students. As noted from the results, educommunication helps to show a critical position forehead implicit audiovisual messages from mass media.

Educommunication, dialogic conversation, critical thought, Primary Education

Sarrera

Komunikazio bide eta kanaletatik heltzen zaizkigun irudien bidezko estimuluen garaian bizi gara. Informazio bonbardeaketa honek autodidaktikoki irudi hauek irakurtzen ikastera behartu gaitu baina, askotan, azaleko irakurketa besterik ez dugu egiten. Ikusmen zentzumenetik datorkigun informazio mordo horrek mezu inplizituak daramatza eta hizkuntza bisualak mezu horiek erakargarriagoak izatea egiten du, ulergarriagoak, limurtzaileagoak eta oroitzeko errezagoak.

Sare sozial baten bideoak ikustean, esaterako, piano musika liluragarritz jantzita eta autolaguntzarako zein itxaropen mezuak zabaltzen dituzten horietako bat; edo telebista ikusten nagoenean, irratia entzuten zein egunkari bat irakurtzen... ernetasun egoeran egiten ditut irakurketa guzti hauek: hizkiak, irudiak zein soinuak izan. Erne mantentzen naiz bizitzan zehar hainbat alditan hedabideen manipulazioa hauteman dudalako, hedabide desberdinetarako lan egin dudalako (IB3 RTV, RTVE, besteak beste), informazio iturrien fidagarritasunean sinesten dudalako eta ezinbestekoa ikusten dudan zintzotasuna inolako lotsarik gabe zapaldu egiten delako. 2004. urteko martxoaren 11an, Bilboko RNE (Radio Nacional de España) irrastian soinu eta kontrol teknikari moduan lan egiten nuen. Goiz hartan, Madrilgo Atocha geltokiko atentatuak zirela eta, Madrilgo RNETik dei bat jaso zuen Bilboko RNE irratico erredaktore nagusiak, "iradokizun" batekin: atentatua ETAk burutu zuela esan beharko zuen hurrengo konexioan. Erredaktore nagusiak ezetz esan zuen, ez zuela halakorik esango ordurako demostraturik ez zegoelako. Handik eta aste batera, erredaktore nagusia Italiara bidali zuten. Eta erredaktore moduan geratu zen. Italian. Familia eta lagun guztiak Bilbon zituela.

Horrela gauzak, garrantzitsua ikusten dut ikasleei baliabideak eskeintzea komunikabide desberdinetatik heltzen zaizkien mezuak zalantzan jartzeko eta alfabetatze mediatikoaren inguruan pentsamendu kritikoa garatzeko. Gaiaren inguruko esparru teorikoa landu ostean, behaketa bat egingo da esku-hartze bat diseinatzeko hasiera puntu gisa. Esku-hartze moduan solasaldi bat proposatzen da: ikasleen eta irudien artekoa, bizipenetan oinarritua eta ikasleen interesetatik abiatuz, ikasleek haien aurkikuntza propioak –hausnarketa esanguratsua– egitera bideratuta egongo delarik.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

Hasteko, ikusentzunezkoen inguruan hezkuntza curriculumak zer esaten duen aipatuko da. Ondoren, alfabetatze bisuala eta mediatikoa definitu eta ikusentzunezko produktu baten dimentsioak zeintzuk diren deskribatuko dira. Dimentsio horietatik lan honi interesatzen zaizkionak azpimarratuko dira: ideologia eta baloreak, hain zuzen ere. Hauen atzean dauden interes politiko, kultural, ekonomiko eta sozialak zabaltzeko hedabideek erabiltzen dituzten irudi mediatikoak bihurtuko dira proposatzen den Arte Hezkuntzako praktikaren ardatza, edukomunikazioa bitartekari izanik. Edukomunikazioa zer den adieraziko da, bere balio hezitzaileari berebiziko garrantzia emango zaiolarik. Gainera, alfabetatze bisualaren eta mediatikoaren inguruan gazteen egoera edota maila zein den ikusiko da.

1.1. Ikusentzunezkoak eta curriculumak

Hedabideen –eta hauek ekoizten dituzten ikusentzunezko produktuen– aurrean kritikotasun egoki bat aurkeztu beharko luke egungo herritar batek: 236/2015 Dekretuak, abenduaren 22koa, oinarrizko hezkuntzaren curriculumak ezartzen duenak (Heziberri 2020), ikasleek lortu behar duten gaitasun audiobisualari erreferentzia egiten dio. Komunikazioak lotura estua izan duela aitortzen du alfabetatze-kontzeptuarekin eta alfabetatzeak, orain gutxi arte, irakurketa eta idazketa menderatzearekin erlazionatu dela. Gaur egun, ordea, gizarte multimedia batean bizi gara eta komunikazio modu berri eta oso indartsuak sortu ditu lengoaien integrazioak (bertan sartzen ditugu irudiak, soinuk, idazkiak...). Era berean, onartzen da egungo gizartean eraginkortasunez parte-hartzeko modu konpetentean erabili behar direla hitzeko lengoaiaren adierazpide guztiak, ikusentzunezko lengoaiak barne.

Europako Kontseiluak emandako definizioa aintzat hartuta, komunikaziorako konpetentzia izateko, alfabetatze askotarikoa izan behar da, eta alfabetatze horrek bere barnean hartu behar ditu irakurtzeko eta idazteko konpetentziak, askotariko informazio-moldeak –testuak eta irudiak, idazkiak, inprimakiak eta horien bertsio elektronikoak barne– ulertu, erabili eta ikuspegi kritikoz ebaluatzeko.

Azpimagarria da Heziberri 2020k bai Arte Hezkuntza barnean zein Hizkuntza –eta Literatura– Komunikaziorako Hezkuntzan, ikusentzunezkoen buruz hitz egiten duela.

Era honetan, ikusentzunezkoak diziplinartekotasun giro batean landu daitezke. Sanmartí eta Oliverasek (2011) testu periodistikoak –irudiak, grafikoak... dituztenak– errealitatearekin lotzeko ikasgelan erabilgarriak direla esaten dute, baita hauen inguruan argumentazioa lantzeko ere, edozein ikasgaietan. Gainera, ezkutuan ageri diren ideologia, estatusa, argumentuen fidagarritasuna edota hipotesien alderatze-prozesua ikasleekin lantzea betebeharrak garrantzitsutzat hartzen dute; hain zuzen ere, lan honetako ikusentzunezkoen dimentsioen barnean, ideologia eta baloreak dimentsioan –aurrerago azalduko dena– agertzen diren interes politiko, kultural, ekonomiko zein sozialak dekodifikatzeko gai izatea. Prozesu zientifikoan egiten den moduan, ikasleei begietatik zein belarrietatik heltzen zaizkien mezuak kritikotasun iragazle batetik igarotzea lagungarria suertatzen da gaur egungo gizartean modu arrakastatsuan ekiteko eta, batez ere, inguratzen gaituen errealitatea eraldatzeko kulturartekotasuna eta jasagarritasuna bermatzen duen bizikidetzaren osasuntsu baten etengabeko bilaketan.

1.2. Alfabetatze audiobisuala eta mediatikoa

Hizkuntza audiobisualaren ezaugarri garrantzitsuenetarikoa gizakiotan erraz barneratzeko duen gaitasuna da (Del Portillo, 2005); ikusteak eta entzuteak, hizkiak irakurtzeak baino esfortzu gutxiago eskatzen baitu. Testu bat irakurtzea, definizio orokor bat ematearren, hitzetatik informazioa ateratzeko egiten dugun prozesua da. Hitz hauek ez daukate adierazten dutenaren antza, ikur abstraktuak direlako. Bai, ordea, irudiek, adierazten dutena errealitatearen antza daukatela eta, horrenbestez, eragin zuzenagoa.

Alfabetatze audiobisuala garatua duen ikasle batek jakin beharko luke artikulazio bikoitza egiten: hots, dekodifikatu (irakurri) eta kodifikatu (adierazi) idatzirik ez dauden izaera desberdineko ikurrak eta ikur horiek erabili (transferitu) eguneroko errealitate egoera eta ikas-irakaskuntza prozesuko ezagutza eremu anitzetan (Aparici eta Matilla, 2010).

Alfabetatze mediatikoa eta audiobisuala oso lotuta daude. Izan ere, hedabideek irudiak eta soinuak erabiltzen dituzte haien mezuak zabaltzeko. Alfabetatze audiobisuala hizkiak ez diren ikurrak irakurri, adierazi eta beste eremu batera transferitzeko

gaitasuna izanik, alfabetatze mediatikoa herritarroi masa-komunikabideen funtzioak eta interesak ulertzea eramaten gaituen alfabetatzea da, edukiak kritikoki ebaluatzeko eta funtsezko erabakiak hartzeko laguntzen gaituena, bai erabiltzaile moduan zein informazio eta eduki mediatikoaren produktore moduan (Gutiérrez eta Tyner, 2012). Alfabetatze hau, herritarron eskubide moduan planteatzen da eta egungo jendartearen erronka bat moduan agertzen da, non hezkuntza sistemak herritartasun mediatikoa lortzeko jarraibideak eman behar dituen (Area, 2012).

1.2.1. Gazteen alfabetatze audiobisualaren eta mediatikoaren egoera

Alfabetatze audiobisualaren egoera euskal gazteen artean nahiko maila baxuan geratzen zela ondorioztatu zuten Basterretxeak eta beste (2010). Gazteek, aurrean zuten irudia baino haratago ez zutela begiratzen –eta, ondorioz, ikusten– nabarmendu zen; teknologia ondo menperatzen zutela baina ekoizpen audiobisualen mezu inplizitua(k) zein(tzuk) d(ir)en antzematen ez zekitela. Iragarkien lenguaiaren osagaiak identifikatzeko orduan, adibidez, argudiatze oso ahula eta gutxi landua aurkezten zutela, zehaztasun gabekoa eta ikusentzunekeo lenguaiaren puntu klabeak erreferentziak egin gabe (sintaktikoak edo teknikoak, morfologikoak, semantikoak...). Horrenbestez, joera zeukatela errealitatea irudiarekin identifikatzeko (irudian ikusten bada, erreal da) eta irudiaren balio erretorikoa edota muntaiaren indar argumentatiboa ez zituztela ezagutzen.

Ildo berean, García eta beste (2014) egindako ikerketan gaitasun mediatikoa neurtu zen. Gaitasun honek ikasleen alfabetatze maila adierazten zuen. Emaitzetatik ondorioztatu zen gazteen gaitasun mediatikoak oraindik ere bere mailarik onena ez zuela lortu. Horregaitik, lan egin behar dela eskola curriculumak alfabetatze mediatikoaren ardura hartu dezan, irudiak ekoizten eta kontsumitzen dituzten herritarrak hezteko eta formatzeko, hedabideetan parte-hartze aktiboa sustatuz, izaera kritiko-eraikitzaile baten murgildurik. Alfabetatze audiobisuala eta mediatikoa, beraz, elkarren eskutik helduta doaz, egungo mundu globalizatuan irudiak eta interesak ere banaezinak diren bezala.

Interesgarriak dira, era berean, Ramírez de la Píscinak eta beste (2011) egin zuten ikerketan zehar sortzen ziren irudien inguruko ikasleen arteko eztabaidak eta nola

partaideek haien hasierako iritzia aldatzen zuten kideen iritzia entzun eta gero, iritzi propioa bereraikiz. Izan ere, edukomunikazioa definitzeko ezaugarrien artean aurkitu daitezkeen pentsamendu kritikoa lanean hasten da eztabaida hauetan, giro parte-hartzaile eta kolaboratiboa ematen da eta ikasketa soziala erretzen eta bultzatzen da. Azken finean, ikasleek haien aurretiazko ideiak zalantzan jartzen dituzte eta eredu mental –ezagutza– berriak eraikitzen.

1.3. Ikusentzunezkoen dimentsioak

Ikusentzunezkoetan garatu behar den gaitasuna definitzeko, oinarrizko ardatz edota dimentsio batzuk ere definitu behar dira (Basterretxea eta beste, 2010):

Hizkuntza: Mundu garatuan bizi den herritarrak hizkuntza audiobisualaren osagaiak identifikatzeko gaitasuna izan behar du eta egitura narratibo eta nolana hiko mezuen esanahia eta zentzua aztertzekeo kapaza izan behar da.

Teknologia: Komunikazio audiobisuala ahalbidetzen duen gailu teknikoaren funtzionamendua ezagutu behar da eta, era berean, gailu horiek mezua nola baldintzatzen duten ulertu.

Ekoizpena: Ekoizpen audiobisualaren diskurtsoa eratzeko eman behar diren pausuak jakin eta eduki sinbolikoak ekoiztu eta zabaldu, propioak eta espezifikoak, gaur egungo espazio audiobisual moderno guztietan.

Harrera maila eta kontzientzia: Bereziki interaktibitatea ahalbidetzen duten teknologiei esker, entzule aktibo bezala jokatzeko eta mezu audiobisualen osagai emotiboak eta arrazionalak balioesteko eta bereiztekeo gai izan behar da.


Dimentsio estetikoak: Eduki sinbolikoak eta aspektu estetikoak interpretatu behar dira. Mezu audiobisualak beste adierazpen mediatiko zein artistikoekin loturak ezartzeko gai izan behar da.

Ideologia eta baloreak: Ikusentzunezkoen komunikazioaren aurrean irakurketaren konpetentzia kritikoa garatu behar da; kontsumitzen duen horretan igorleak utzi dituen munduaren interpretazio espezifiko eta partzialak identifikatzeko –interpretazio ideologikoak, etikoak zein estetikoak–. Kontsumitzaileok jakin behar dugu ikusentzunezkoen komunikazioak berarekin batera bestelako asmoak ere ekartzen dituela: interes ekonomikoak, politikoak, kulturalak eta sozialak.

1.3.1. Arreta ideologia eta baloreen dimentsioan

Aurretik esan bezala, arreta dimentsio honetan jarriko da ikusentzunezkoen dimentsiorik adierazgarriena bihurtu daitekeelako alfabetatze mediatikoa lortzeko. Izan ere, ideologia eta baloreen dimentsioa, ulermenezkoa eta kritikoa den irakurketa gaitasunarekin lotuta dago. Era berean, irakurketa hau ikusentzunezko mezuak eta hauek transmititzen dituzten –eta errealitatearen adierazpen diren– balore etiko, ideologiko eta estetikoekin harremanduta dago (García, Ramírez eta Rodríguez, 2014). Datu aipagarri moduan, García eta beste (2014) ikusentzunezkoen eta nerabeen arteko harremanak aztertze egindako ikerketan, soilik ikasleen erdiak egoki erantzun zuten baloreen identifikazioa eta desberdintzea eskatzen zuten galderei.

Guinsbergek (2005) ondorioztatzen duen moduan, hedabideen ekarpen ideologiko-hezitzailea ezin da ahaztu eta kontuan hartu beharra dago, batez ere hezkuntza sistematan, gaur egungo jendarte kapitalistan betetzen duten paperagatik –alienatzailea, konformista, eta abar– kondentatzeko akatsean erori gabe, beti ere. Gainera, hedabideak ez direla berez onak ala txarrak adierazten du, baizik eta haien kontrola eramaten duten marko sozial edo talde jakin batzuetako tresnak direla. Hau da, haien funtzio ideologikoa haien gainean eragiten duen botere motaren menpe egongo dela. Funtzio ideologiko horrek, ezinbestean, bestelako asmoak ere ekartzen ditu: hala nola interes ekonomikoak, politikoak, kulturalak eta sozialak.



1. Irudia (Interpretazio pertsonala). Komunikabideek ideologia eta balore batzuk kodifikatzen dituzte irudi mediatikoetan. Ikasleek irudietako mezu horiek dekodifikatu behar dituzte interesak zeintzuk diren ezagutzeko.

Interes hauek berebiziko garrantzia hartzen dute jendarteko bizimoduetan eta pentsamoldeetan eragiteko orduan. Era berean, hedabideak doktrinamendu kulturala eta kontrol soziala eragiteko tresna bihurtu dira, gailu elektoralak dira eta jendarte kontsumitzaile baten baloreen azeleratzaileak dira (Blesa, 2006). Hau da, interes kultural, sozial, politiko eta ekonomikoak jendartean zabaltzeko tresna. Masa-komunikabideen eta botere ekonomiko zein politikoaren arteko erlazioa gero eta

zalantzarriagoa da eta zabaltzen dituzten interes politikoek, kulturek, ekonomikoek eta sozialek gero eta muga lausotuagoak dituzte haien artean.

Esaterako, ikasleek kontsumitzen dituzten irudi eta bideoetan agertzen diren pertsonaiek jarrera eta portaera jakin batzuk adierazten dituzte, bai sozialki zein indibidualki. Baina... musika bideoklip baten agertzen diren pertsonaien jantziak badira, era berean, momentu eta leku horretako modaren –eta, horrenbestez, kulturaren– zein ekonomiaren adierazle. Jantzi horiek ekoizten dituen enpresak dirua irabaziko du, zeharka, musika bideoklip batean bere marka sartu duelako, hainbat jende ikusi duelako eta horietatik beste hainbatek jantzi horiek erosi dituelako. Interes desberdinak elkar lotuta daude, beraz, irudietan inplizituki. Horregatik lan honetan irudiak erabiliko dira zeharkakotasunezko ikuspegi zabal batetik lan egiteko eta errealitate desberdinak ahalik eta ikuspegi gehienetatik aztertzeko, errealitate horien ezkutuko interesak ezagutzeko eta, azken batean, ikusentzunezkoen eta hedabideen aurrean jarrera kritiko bat izateko. Guzti horretarako, edukomunikazioa beharrezko baliabidea dela ikusten dute Garcíak eta beste (2014).

1.4. Edukomunikazioa

Edukomunikazioa, hezkuntza eta komunikazio hitzen artean egindako elkarketa da (gaztelerara *educación-comunicación*). Anglosaxoiek *media literacy* deritzote, hau da, komunikabideetan heziketa izatea, komunikabideen literatura ezagutzea edo alfabetatze mediatikoa lortzeko heziketa. Edukomunikazio korrontearen hastapenak ugariak dira, baina horien artean hurrengoak nabarmentzen ditu Barbases (2012): Celestin Freineten hezkuntza esperientzia eta Frank Raymond Leavis eta Denys Thompsonen *Culture and Environment* liburua. Hezkuntza eta komunikazioaren arteko erlazioaren interpretazioa joera desberdinetatik mugitzen da hezkuntza, komunikazioa, kultura eta gizartea kontzeptuei jarraituz. Horrenbestez, esleitzen zaizkien xede politiko, kultural, ekonomiko zein sozialak aintzat hartu behar dira eta kritikotasunez aztertu eta landu.

Edukomunikazioa praktikan jarri aurretik, lehenik eta bat bere ezaugarriak zeintzuk diren deskribatuko dira (Barbas, 2012):

- Jatorri kolaboratiboa eta parte-hartzailea dauka, elkarrizketarako prestatzen baititu parte-hartzaileak, pentsamendu kritikoa eta hizkuntza oinarri izanik.
- Aukera eraldatzaile eta sormenezkoak eskeintzen ditu, prozesuan zehar ezagutzak eraikitzen direlarik.
- Komunikabideen erabilera edukomunikazio prozesuan. Komunikatzeko bideak teknologiak dira, alegia.
- Ziberespazioa aintzat hartu behar da –eta aprobetxatu– ikasketa eremu edo ingurune bezala, sarea gizartearen luzapen moduan ikusiz.
- Ikasketa soziala (soziokonstruktibismoa) erreztea eta bultzatzea.
- Edukomunikazioa beti erne egon behar da *webeko* ikasketa era berriekin, hauek zalantzan jartzeko zein sustatzeko, baina beti hausnarketa eta kritikotasun jarrera dela medio, gizartean eragiteko eta hura eraldatzeko eta hobetzeko xedearekin.

Aipatu den moduan, zaila da askotan politikaren garroak noraino heltzen diren antzematea eta kultura, ekonomia eta politikaren arteko mugak non dauden jakitea lan neketsua suertatzen da. Informazio jatorriari buruzko ezagutza handiago batek, herritartasun kontzeptuaren eraikuntzaren ulermen sakonago batek, politikan bihurtzen diren praktika kulturalak zeintzuk diren jakiteak eta subjektibazio eta sozializazio prozesuak ezagutzeak, praktika berriak sortzen lagunduko luke (Espitia Vásquez, 2009). Praktika berri hauek botere soziala berrezartzeko, jendartea eraldatzeko eta desberdintasunatik abiatuz mundu alternatiboak sortzeko baliagarriak izan daitezke. Praktika berri hauen artean edukomunikazioa aurkitzen da, hain zuzen ere.

1.4.1. Irudi mediatikoak edukomunikazioan

Bisualaren garrantzia eta nonahikotasuna jendartean sarritan adierazia izan da Mitchell (1995) edota Mirzoeff (2003) bezalako autoreengatik. Hauek defendatzen dute adierazpen bisualak –irudiak– ez direla soilik errealitatearen adierazpen hutsak. Ordea, gizartean ematen diren jarrera ereduak, sinesmenak eta portaerak adierazten dituztela azpimarratzen dute eta haien estetika landuei esker, ahalmen limurtzaile izugarria dutela. Hezkuntza arlotik heltzen badiogu, ideia hau oso garrantzitsua da gazteek

munduarekiko haien posizioa eraikitzen dutelako eta haien iruditeria hornitzen dutelako adierazpen bisual hauek aintzat hartuta, hauengandik elikatuz, plazer esperientziak eta gozamen estetikoak biziz.

Alfabetatze audiobisuala zein mediatikoa lortzeko, ezinbestean, irudiekin lan egin behar da. Irudi mediatikoak garaiko bisualitateari gehitzeko adierazpen kultural batzuk dira, hauen artean hedabideetan agertzen diren irudiak aipagarrienak izanik. Forma aldetik, ikus kultura Freedmanentzat (2006) kulturaren adierazpen bisuala besterik ez da, eta ezaugarri bisualak dituzten gailu eta hedabide guztiak sartzen ditu barne: arte ederretatik telebistara arte, zinema, bideoa, esfera birtuala (internet), publizitatea, eta abar. Eduki aldetik, Hernándezek (1997) defendatzen du Arte Hezkuntzak hurrengo gaiak bildu beharko lituzkeela: Artearen Historia tradizioaletik gaur egungo ikonografia mediatikora arte; teoria kritikoarekin, filosofiarekin eta nortasuna osatzeko diskurtso politikoekin erlazionatzen diren ikasketak sustatuz. Lan honetan irudi horiek guztiak aintzat hartuko dira.

Irudi mediatikoekin lan egiteko argumentuak, beraz, hurrengoak dira: irudi mediatikoak praktika sozialak direla, ikasleen bizitzetatik hurbil kokatzen direla eta eragina daukatela haiengan, Arteari buruz gure ikuspegia taxutu egiten dutela, jarrera sozial desberdinak bideratzen dituztela eta baloreak eta sinesmenak erantsi egiten dituztela. Duncum-en (1996) arabera, besteak beste, komunikabideak dira esperientzia estetikoaren eta ezagutzen iturri nagusia eta hauen bidez munduari eta geure buruari buruz ikasten dugu.

1.5. Edukomunikazioa hezkuntza estrategia moduan

Edukomunikazioaren printzipio pedagogikoak filosofia bat bezala aurkezten dira. Elkarrizketan eta parte-hartze aktiboan oinarrituak, ez dute soilik teknologien beharra baizik eta jarrera eta kontzepzio aldaketak ere eskatzen dute. Edukomunikazioak, XX. mendeko hezkuntza arloko teoriarari izan zen Paulo Freireren komunikazio dialogikoan ditu hastapenak, besteak beste. Dialogikoa izateak ez duela inbaditzailea ezta manipulatzailea izatea suposatzen behar defendatzen zuen. Era honetan, dialogikoa izatea errealitatearen etengabeko eraldaketan ekitea dela (Freire, 2005). Elkarrizketan dagoela gakoa ezagutza arazo moduan planteatzeko eta komunikazio bertikal zein

horizontalen bitartez ikasketa dialogikoa sustatzeko. Era honetan, elkarren arteko ezagutzetan sakontzen dela eta aurretiazko ezagutzak zalantzan jartzen direla, ezagutza berriak eraikitzen joateko.

Informazio eta Komunikazio Teknologiek (IKT), sare sozialek eta internetek ikasketa dialogiko hori ahalbidetzen dute, beti ere kontzientzia hau izaten formatzen badira bai irakasleak zein ikasleak (Freire, 2005). Edukomunikazioa prozesu dialogiko moduan ulertuta, kontzepzio sozial hezitzaileetan, komunikatiboetan, mediatikoetan eta teknologikoetan oinarritzen da, instrumentalak ez direnak, eta herritar kritikoak izatera bideratzen dituztenak. Era berean, ezinezkoa da ikasketa prozesua ulertzea edonolako komunikazioa ematen ez baldin bada. Edukomunikazioa beraz, pedagogia kritikoaren printzipioetan oinarritzen da, eta bi alderdi hauen parte-hartzea eskatzen du: komunikazioa eta hezkuntza. Komunikazioaren hezkuntzan, hizkuntza eta komunikatzeko bide (pertsonal, talde zein jendarte mailan) anitzak ezagutu behar dira, zentzu kritikoa garatzearekin batera, ikasketa prozesuari eta informazio mezuei aurre egiteko (modu aktibo, inteligente eta arrazionalen kontsumituz) eta balore kultural propioak eraikitzeko, ludiko zein formakuntza ikuspegiak aprobetxatuz eta mezuak era kontziente eta selektiboan interpretatuz (Aguaded, 1998).

Hala gauzak, edukomunikazioaren lehentasunen artean ikusentzunezko ekoizpen gisa ulertu daitekeen oro testuinguratzea dago, edozein arlotan (politikoan, kulturean, ekonomikoan zein sozialean). Era honetan, ikusentzunezko ekoizpen horiek zabaltzen dituzten mezuak nahiz onak zein txarrak direla kontsideratu, baina ikaslearen ikuspegiak zabaltzeko balio beharko luke, eta gaur egun zein historian zehar gertatutakoa kritikoki ulertzen lagundu. Tamalez, ez da egi absolutoa existitzen eta helarazten dizkiguten informazioek interes desberdinak dituzte; asmo bat ezkututzen dute, alegia. Hala ere, egoera hau aukera bilakatu daiteke eta nahiz eta kontraesankor dirudien arren, berri baten zehartasunak (begirada partzialak, interesatuak) informazio hori zein puntutaraino deseraiki dezakegun adierazten digu, gero didaktikoki esplotatzeko eta baliabide moduan erabiltzeko, bere diskurtso esplizitu zein implizituen bidez. Gonzálezek (2000) jasotzen duen moduan, beraz, edukomunikazioa eskolan sartu beharra dago, beti ere bere zentzu multidiziplinarra

eta zeharkakoa aintzat hartuz, eta pentsamendu kritikoaren amaigabeko eraikuntza eta deseraikuntza prozesuan murgilduz.

1.5.1. Arte Hezkuntzak zereginik badu

Esan bezala, komunikabideen eragina gure bizimoduetan ukazina da eta, pentsatzen dugun baino gehiagotan, jendartean ematen diren portaera-patroi desberdinen eragilea da. Batez ere, arreta jartzen badugu komunikabideek zabaltzen dituzten mezu partzialetan, inplizituetan, lerroen artekoetan. Zergatik ez ba, Arte Hezkuntza erabili ezkutuko mezu horiek dekodifikatzeko –kodifikatzeko erabiltzen den tresna baita Artea– eta ikusentzunezkoekiko jarrera kritiko bat izateko Lehen Hezkuntzan (LH)?

Irudiak sakontasunez irakurtzeko, hau da, haien ikuspegi estetikoa baino haratago joateko eta inplizituki doazen mezuak antzemateko (ikusentzunezkoen ideologia eta baloreak dimentsioarekin lotuta), Arte diziplinak lagundu dezake. Irudi guztien irakurketa, kudeaketa eta sorkuntza, hezkuntza praktiketan sartzeko beharra ikusi zioten ikerketa egin ondoren Ramírez de la Piscina eta beste (2011). Haien ondorioetan, komunikazio munduaren irakurketa sakonago eta kritikoago bat –alfabetatze mediatikoa, alegia– aldarrikatu zuten hezkuntza sistemarako; multidiziplinarra eta gazteen lilurapen kontsumista baino haratago joateko ahalmena duena. Arte Hezkuntzak eta edukomunikazioak bat egin beharko lukete, beraz, biek ikus kulturari begira, perspektiba oso interesgarriak zabaltzen baitizkigute klase barruan irudi mediatikoen ikaskuntzarako eta hauen erabilpenerako (Baraze, 2010). Ikus kulturari buruz esan beharra dago hainbat definizio daudela: batzuk irudiei garrantzi gehiago ematen dioten bitartean, besteek Arteari (Hernández, 2005). Lan honetan ikus kulturari buruz hitz egiten denean, ikasleek kontsumitzen dituzten eta haien izaerak eta harremanak eraikitze erabiltzen dituzten irudiei egiten zaie erreferentzia.

Posizio *berreraikitzaileak*, ikasteko eta begirada jartzeko era berriak kontuan hartzen dituztenak dira (Clark, 1996). Eta horretan datza, hain zuzen ere: inguratzen gaituena zalantzan jartzean, deseraikitzean berriro ere eraikitze. Horrenbestez, hezkuntza praktikak birplanteatu behar dira. Zentzu honetan, Hernándezek (2007) dauden

praktikak zaharkituak daudela eta gainera ikus kulturaren edukiak eta gaiak asko ugaritu eta aldatu egin direla esaten du. Proposamenek ikuspegi berria aurkezten dute: Arte Hezkuntzaren moldaketa ezik, sakoneko aldaketa bat, bai ikasketa objektuan zein arte bisualen heziketan. Honela, bi ideia nagusi identifikatzen dira: irudi mediatikoak aintzat hartzea eta irudi hauen aurrean Arte Hezkuntzak duen papera balioeztea.

Arte Hezkuntza eta edukomunikazioaren arteko elkarlanak ahalbidetuko luke hezkuntza sisteman masa-komunikabideen hezkuntza integratzea oinarrizko hezkuntzan, eta helburu nagusia ikuspegiak zabaltzea izango litzateke (Baraze, 2010): fenomeno kultural eta mediatikoak jorratzeko ikuspegiak, hain zuzen. Era honetan, hedabideen eta haien irudi mediatikoen aurrean kritikoki erantzuteko gaitasuna eskeini diezaioke hezkuntza sistemak bere ikasleei.

2. Metodologia

Behin marko teorikoa garatua, ikerketa hau metodologia kualitatiboaz baliatzen da adieraziko den hipotesian sakontzeko, eta behaketa batetik abiatuta, edukomunikazioan oinarritzen den elkarrizketa dialogikoan uztartzen den esku-hartzea gauzatuko da. Behaketaren bidez datu bilketa bat egingo da, beraz, gero esku-hartzea diseinatu ahal izateko. Esku-hartzea, era berean, solasaldi bat da: prestatutako *Power point* batek biltzen dituen irudien (ikusi 7.1. *Eranskina*) eta ikasleen artekoa, edukomunikazioaren ezaugarrietan oinarrituko da parte-hartzeko aukerak zabaltzeko, kolaborazioa sustatzeko, komunikabideak –eta hauetan agertzen diren irudi mediatikoak– erabiltzeko, ikasketa soziala –soziokonstruktibismoa– eta sormenezkoa bultzatzeko eta pentsamendu kritikoa garatzeko. Ikasleek haien iritzia nola argudiatzen duten erregistraturik geratuko da, soinu grabazio horretatik ondorioak atera ahal izateko (irudienganako ikasleen erreakzioetan eta argudiatzeko gaitasunean jarriko da arreta). Azkenik, emaitzarik azpimagarrienak bideo baten jasoko dira.

2.1. Zergaitik esku-hartzea

Beharrezana ikusten da errealitatearekiko harreman zuzena ezartzeko eta benetako bizipenak erabiltzeko, ikasketa esanguratsuatik ahalik eta hurbilen egoteko; ikasleek lehenengo pertsonan bizipena izateko eta, horrenbestez, esku-hartzeak ikasleengan

eragin handiagoa izateko. Era berean, eta azkenengo xedetzat, gutxienezko alfabetatze mediatiko bat lortzeko, hipotesia eta helburuak atalean definitzen den moduan. Horregaitik, lan honetan proposatzen den edukomunikazioaren baitan kokatzen den irudien bidezko elkarrizketa dialogikoa egingo da esku-hartze moduan. Irudien eta argumentazioen arteko solasaldia. Irudien eta ikasleen arteko elkarrizketa dialogikoa, alegia.

2.2. Tresna

Edukomunikazioa oinarritzat hartuko da esku-hartzea egiteko, elkarrizketa dialogikoa bidelagun duelarik. Edukomunikazioa edozein komunikabidek hedatzen dituen irudien inguruko hausnarketa moduan ulertzen badugu, eta hausnarketa prozesuan irudiak irakurri, interpretatu eta sortzeko gaitasunak ere parte-hartzen badu, pertsona garatzen laguntzen duten trebetasunen –alfabetatzeen– artean toki lehendarra izan beharko luke, batez ere gaur egungo informazioaren jendartean. Adibidez, iragarki batetik badakigu iragartzaileak zer nahi duen guri transmititu ondorioztatzen (zeintzuk diren produktuaren kalitateak eta hura desiatzera eramaten gaituztenak), baina zailtasunak ditugu irudi publizitario hori benetan interpretatzeko eta transmititzen ari den ideologia eta balore guztiak dekodifikatzeko (Fonturbel, 2006); hala nola, konsolidatzen dituen genero estereotipoak edota zer nolako estrategiak erabiltzen ari den gu manipulatzeko. Hau da, ikusentzunezkoen dimentsioen barnean ideologia eta baloreak adierazten dituzten ezkutuko interesak dekodifikatzeko zailtasunak. Edukomunikazioak uztartzen duen elkarrizketa dialogikoa izan daiteke dekodifikazio prozesua egoki egiteko giltza, hain zuzen ere.

Aparicik (2010) gaur egungo hezkuntza sistemaren egoeraren ikuspegi orokorra eskeintzen digu: "Kultura popularraren –eta ikus-kulturaren– egungo formak sare sozialei, parte-hartzeari, bideojokuei, *Youtubeko* bideoei eta abarri lotuta dauden bitartean, ikasgeletako kultura ofizialak tradizio gutenbergiarrari eta gizarte industrialak utzi dizkigun hezkuntza eredu transmisoreei loturik dirau". Hau da, jendarteak ikusentzunezko bidezko milaka mezu eta estimulu jasotzen dituen bitartean, eskolak oraindik ere liburuak eta klase magistralak erabiltzen dituela ikasgeletan, inguruan dituen baliabideak uztiatu gabe. Anakronismoan ez jausteko

(Robinson, 2011), garrantzitsua da eskolak harremanak sortzea jendartea osotzen duten errealitate desberdinekin. Eskola mikrosistema bat moduan ulertzen badugu, ikasgelen hormetatik kanpo dauden sistemekin loturak ezartzeak jendartearen ikuspegi fidagarriago bat izatera eraman gaitzake (Bronfenbrenner, 1987). Era honetan, edukomunikazioa izan daiteke lotura horiek egiteko baliabide paregabea.

Esan bezala, elkarrizketa dialogiko baten dinamikan txertatu nahi da edukomunikazioan oinarritzen den lan honetako esku-hartzea. Elkarrizketa hori irudien eta ikasleen artekoa izango da, baina irakasleak ere parte hartuko du. Era honetan, elkarreragin horizontal zein bertikalak sortzeko aukerak daude. Aipatu den moduan, arreta jarriko da ikusentzunezko mezuen ideologia eta baloreetan eta hauek daramatzaten interes inplizituetan. Interes guztien artean politikoak, kulturalak, ekonomikoak eta sozialak dira edukomunikazioaren bitartez landu nahi direnak; jendarteko indibiduen bizimodua gehien markatzen dutenak, hain zuzen ere.

Aipatu beharra dago, bukatzeko, Basterretxeak eta beste (2010) egindako alfabetatze audiobisualaren egoerari buruzko ikerketak agerian utzi zuela gazteen alfabetatze audiobisual maila baxua; gauza berdina gertatu zen Garcíak eta beste (2014) egindako ikerketan. LHtik jada igaro ziren ikasleekin egin zuten eta horrek adierazi dezake edukomunikazioan oinarritzen den esku-hartzea LHn egin beharko litzatekeela, preseski.

2.3. Lagina

Ikastaldea 25 ikaslez osaturik dago. Itunpeko ikastola kooperatiba bateko LHko 6. mailakoak dira, maila sozio-ekonomiko ertain-altukoak. Maila psikosozial aldetik, ikasleak arazo larregirik gabe harremantzen dira bai ikasgela barruan zein kanpoan. Talde lanean zein bakarka lan egiteko zailtasunik ez dute aurkezten.

Maila kognitibo aldetik, hausnarketarako denbora gutxi izan ohi dute eta, orokorrean, oinarritzko kontzeptuak lantzeko erabiltzen duten estrategia ariketa desberdinen errepikapena da, oroimenezko lanarekin batera. Ikasketa prozesuan aurrera egiten dute denek, baina heldutasun maila desberdinak agertzen dira, esaterako, parte-hartzea eskatzen denean eta haien argudioak eraiki behar dituztenean. Batzuk inferentziak egiten dituzte eta alde zuzenetik dituzten esperientzia zein kontakizunei

heltzen diote haien ideiak antolatzeko, arrakasta gehiago edo gutxiagorekin; baina badira beste batzuk oraindik ere azalean geratzen direnak eta momentuan bururatzen zaizkien erantzun soilak botatzen dituztenak. Alegia, batzuen ekarpenak esanguratsuak izan daitezke eta dinamika kolaboratiboak sustatu, elkarrizketa dialogikoa faboratuz; ordea, beste batzuenak hutsak eta esanahia gabeak.

3. Lanaren garapena

Atal honetan, hasierako hipotesi bati jarraiki helburu batzuk planteatuko dira eta behaketa bat egin ondoren jasotako emaitzekin esku-hartzea diseinatu (*7.1. Eranskina*) eta ikasgelan aplikatuko da.

3.1. Hipotesia

Edukomunikazioaren oinarria edo filosofia ezartzen bada hezkuntza estrategia gisa, ikasleek komunikabideen mezuen dekodifikazioa barneratuko dute eta gai izango dira irudien –eta soinuaren– aurrean pentsamendu kritiko bat aurkezteko.

3.2. Helburuak

- Ikasleak hedabideetatik heltzen zaizkien ideologia eta baloreak eta beraiekin bestelako asmoak ere ekartzen dituzten interes ekonomiko, politiko, kultural eta sozialak antzemateko eta zalantzan jartzeko gai izatea.
- Ikasleek gutxienezko alfabetatze mediatiko bat barneratzea. Irudien balore formalak transmititzen dituzten mezuak dekodifikatu eta kritikotasunez aztertzeke gai izatea.
- Edukomunikazioaren oinarriak hartuta, taldeko elkarrizketa dialogikoan oinarritutako ezagutza sustatzea.

3.3. Faseak

Lehenengo fasean behaketa bat egin da. Behaketa horren ondorioz lortutako emaitzekin esku-hartze –solasaldi– bat izateko materiala prestatu da (*7.1 Eranskina*), edukomunikazioan oinarritutako elkarrizketa dialogiko baten bidezko esku-hartzea

gehiago zehaztuz. Azkenik, bigarren fasean, esku-hartzea egin da eta, emaitzetatik, ondorioak atera dira.

3.3.1. I FASEA: Behaketa

Ikasleek kontsumitzen dituzten ikusentzunezko produktuak zeintzuk diren jakin eta irudi eta bideo horiek erabili dira solasaldian, ahal izan den neurrian, ikasleen interesetatik abiatuz motibazioa areagotzeko eta ikasketa esanguratsura hurbiltzeko. Beraz, esku-hartzearen diseinuari zehaztasuna emateko eta laginaren errealitateari egokitzeko 6. LHko ikasgela batean behaketa egin da UPV/EHU Bilboko irakasleen unibertsitate eskolako praktikaldian (Practicum III) zehar eta ikasleek haien ordenagailuak ikasgelan erabiltzen dituztela aprobetxatuz.

Behaketa zeharkako elkarrizketen bidez egin da, ahalik eta giro naturalenean, egoera bere funtzionamendu *normalean* behatuz, ikasleak behatuak sentitzen ez diren uneetan (Callejo, 2002): hots, ikasleei erantzuna aldatzeko eskatzen ez dien giro erosoan; haien erantzunek gutxienezko kanpoko kutsadura izango duten toki eta momentuan; zintzoa izatea kostatzen ez denean, ez dagoelako zer galtzerik ezta zer irabazterik ere. Orduantxe egin zaizkie galderak eta behatu dira ikasleak, kontsumitzen dituzten ikusentzunezko produktuak zeintzuk diren jakiteko. Adibidez, irakasleak bidali dizkien ariketak egiten bukatzen dutenean eta ordenagailuetan ibiltzen direnean modu lasai batean (askotan pantaila baten inguruan hiruzpalau lagun elkartzen direlarik bideo bat ikusteko), jolastokira irten baino lehenagoko denbora tartetean.

Behaketaren emaitzak

Ikasleek haien pantailetan begiratzen dituzten ikusentzunezko produktuak, gehien bat, musika bideoklipak (*reggaeton* eta *trap* musika generoenak, batik bat), *youtuber gamerrak* (*Fortnite* jokuaren inguruan) eta *youtuber eta instagramer influencerrak* (modaren eta bizimoduen ingurukoak) dira. Telesailak ere jarraitzen dituzte eta *Stranger Things* telesaila ikusten ari dira. Galdetu ere egin zaie telebistan edota egunkarietan berriak ikusten edo irakurtzen dituzten ala ez, eta gehiengoek egunkariei ezetz esan baina teleberriren baten bat gurasoekin ikusten dutela aitortu dute. Dena den, datu hauek ez dira erabakigarriak solasaldirako irudi mediatikoak aukeratzeko

orduan. Hau da, komunikabideen aldetik manipulazio bat pairatzen ari direla ohartarazteko ez da beharrezkoa *trap* musika generoko bideoklip jakin baten *frame* bat aztertzea, adibidez. Baina lagundu dezake ikaslearen interesetatik hurbil egotea, arreta gehien lortzeko, batez ere ikasgeletan dagoen irakasle-ikasle ratioa zein den kontuan hartuta.

Azpimarragarria da nahiko ikastalde dinamikoa dela baina soilik bere interesetatik hurbil dauden arloekin inplikazio nabarmena lortzen duela. Esan bezala, pantailetan, hau da, telebista, ordenagailu zein telefono mugikorretan agertzen diren irudi mediatikoekin daukaten harremana *Youtube* eta *Instagramen* bidez izan ohi dute. Honek esan nahi du arloak anitzak direla eta kontsumitzen dituzten ikusentzunezkoen produktuak ere amaigabeak direla. Hala ere, *online* bideojokuak eta *instagramerren* bizimoduak dira produktu horien gai nagusiak.

3.3.2. II FASEA: Esku-hartzea. Edukomunikazioan oinarritutako elkarrizketa dialogikoa

Edukomunikazioan oinarritutako solasaldia aurrera ateratzeko baliabideak dira ordenagailua, arbela digitala eta lan honetarako bereziki prestatutako irudi –eta bideo– mediatikoen *Power pointa* (7.1. *Eranskina*). Bertan, lan honetan irudi mediatikotzat jotzen diren ikusentzunezko ekoizpenak jaso dira: *Youtuben* agertzen direnetatik hasi eta teleberrietan agertzen direnak arte, marrazki bizidunetatik eta egunkarietatik igaro eta *influencerrak*, abeslariak, *youtuberrak*, *instagramerrak*, publizitatea, zinema eta abar barne. Saioa grabatzeko *Sennheiser ME-66* mikrofono superkardioidea, *Sennheiser e-835* mikrofono dinamikoa eta *Tascam DR-680* soinu grabadore digitala erabili da eta *.wav* soinu fitxategi digitala sortu da *SD* memoria txartela baten. Ikasleen antolaketa borobil-erdian eserita eta arbela digitalaren aurrean, elkarrizketa faboratzeko. Mikrofonoa borobil-erdiaren erdian kokatu da, ikasle guztien ahotsak jaso ahal izateko, mikrofono-oin baten ezarrita. Beste mikrofonoa, eskukoa, prest egon da baita ere ikasleek txandaka erabili dezaten.

Ikasleei aurkeztu zaizkien irudien aukeraketa eta sekuentziazioa gai desberdinen arabera egin da eta, esan bezala, *Power point* (7.1. *Eranskina*) batean aurkeztu zaie. Beti ere, behaketaren ondorioz atera diren emaitzak aintzat hartuz: lehenik eta behin

Egia kontzeptua abiapuntutzat hartuta, pantailan irudi mediatiko desberdinak jarri zaizkie galderak (7.2. *Eranskina*) egin zaizkien bitartean; ondoren, Zentzumenak lantzeko irudiak, gero Komunikabideen inguruan, Manipulazioa, Bideoa eta Zinema, Sare Sozialak eta, amaitzeko, Publizitatearen inguruan elkarrizketa dialogiko bat sustatzeko irudiak.

Ikasleak irudia eta soinuaren elementu desberdinetan murgildu dira elkarrizketa dialogikoan zehar; honetarako irudi mediatiko eta bideo ugari aukeratu dira. Fitxategi mediatiko hauek ikasleei aurkeztu zaizkie, bidaia bat modukoa planteatzen delarik solasaldiak aurrerantz jotzen duen heinean. Irudiak, bideoak eta aipuak (7.1. *Eranskina*), galdera desberdinak (7.2. *Eranskina*) direla medio, bidai horretako geltoki modukoak dira eta esfortzu kognitibo bat eskatzen die ikasleei, zergaitien bila joateko edota ikusten ari direna zalantzan jartzeko, behintzat. Irudi bat baldin bada, esaterako, hasiera baten irudi hori hitzez deskribatu behar dute ikasleek eta ondoren inolako manipulaziorik jasan duen ala ez aurkitu, manipulazio horren helburua zein izan daitekeen argudiatu, eta abar. Gerta liteke elkarrizketa interesgarria sortzea lehenengo irudiarekin eta horren inguruan ematea saio guztia: onartzen da, ez dago *Power pointeko* (7.1. *Eranskina*) diapositiba eta irudi mediatiko guztiak ikusi beharrik.

Gai desberdinak errepresentatzen dituzten irudi mediatikoen bidez eta galdera ireki eta bideratzaileen bidez (ikusi 7.2. *Eranskina*) elkarrizketa jariotsua eragin da, mezuak dekodifikatu dituzten aldi berean, argudiatzeko gaitasuna lantzeko aukerak ugaltzeko. Gerora, argudio horiek alfabetatze mediatikoa zein neurritan lortu den adierazle izan dira. Ideologia eta baloreekin lotuta, interes politiko, kultural, ekonomiko eta sozialak dekodifikatzera bideratuta egon da elkarrizketa eta, horrenbestez, ikasleei egin zaizkien galdera irekiak baita ere. Lanean zehar azaldu den moduan, interes desberdinen mugak gero eta nahasiagoak agertzen dira hedabideetan zein jendartean, eta horrek zailtasunak jartzen dizkio irudien prozesu dekodifikatzaileari. Muga horiek ere elkarrizketako esaldietan zeharka agertzen dira, nahasirik.

4. Emaitzak

Solasaldiaren emaitzarik azpimagarrienak (grabatutako soinu pasarteak, azken finean) 7 minutuko iraupena duen bideo baten jaso dira. Bideoa ikusgarri dago helbide

honetan: <https://vimeo.com/271270136>. Soinu fitxategietan gordetako eta bideoan agertzen diren emaitza horiei aipu egiteko idatzizko lan honetan, bideoko denbora adierazten duen kode baten bidez adierazten da; adibide moduan: (Bideoa, 05:19).

Orokorrean, ikasleek gutxienezko alfabetatze mediatikoa lortu duten adierazle diren esaldiak jaso dira, konkretuki ideologia eta baloreen dimentsioan arreta jarri delarik. Era honetan, ikasleak gai dira hedabideetatik heltzen zaizkien mezuen ezkutuko interesak antzemateko (politiko, kultural, ekonomiko zein sozialak), zailtasunak badituzte ere. Hala ere, zailtasun horiek gainditzen dira irakasleak irudi edota bideoen inguruan galdera irekiak eta interesak azalaratzeko bideratuak egiten dituenen. Hau da, edukomunikazioaren praktikek eta dinamikek funtzionatzen dute.

Emaitzek hurrengo adierazten dutela esan daiteke: batetik, tresnaren potentzialtasunaren barnean, ikasleek izan duten jarrera eta argudiatzeko estrategiak zeintzuk diren. Bestetik, esku-hartzean proposatzen diren gaien inguruan zeintzuk iritzi dituzten eta nola eraikitzen dituzten iritzi berriak; hau da, edukomunikazioa estrategia moduan erabili bitartean –eta ondoren– ikasleek ematen dituzten argudioak. Argudio hauek eta argudio hauek eraikitzeko moduek, era berean, mota askotako pentsaerak agerian utzi dituzte. Azkenik, taldeko hausnarketa orokorra. Jarraian edukomunikazio tresnak ahalbidetu dituen emaitza espezifikoak plazaratzen dira:

Tresnaren potentzialtasuna

Ikasleen jarrera aldetik, parte-hartze kolaboratiboa naturaltasunez eman da (Bideoa, 00:18) eta batzutan batek besteei galderak egiten dizkie, bere argudioari indarra emateko eta baita haien iritzia entzuteko ere. Elkarrizketan zehar, ikasleei bururatzen zaizkien galderak ere botatzen dituzte, nonork erantzuteko zain. Kuriositatea piztu egin zaie, beraz, eta motibatuta egon dira. Anekdotak pertsonalak sartzeko asko gustatzen zaie, eta edozein aukera erabiltzen dute: orainoan, *El Correo* egunkariaren harpidetzarako teknika komertzialari buruzko kontakizuna (Bideoa, 00:38). Kasuan, zer ikusirik badauka gaiarekin; izan ere, interes ekonomikoa ikusi dio ikasleak. Nahiz eta teknika komertziala izan, pantailen bidez eta pantailak eskeintzen dizkion irudien bidezko esperientzia izan da, eta berak kontatu nahi izan du. Hedabideak dirua eskatu dio bere orrialdeak irakurtzen jarraitu ahal izateko, eta horrek arreta deitu dio.

Argudiatzeko estrategia aldetik, ikasleek kideen iritzia kontuan hartzeko gai dira eta haien hasierako iritziarekin alderatzeko berri bat eraikitzeko (Bideoa, 01:01). Zentzu horretan ikuspegi zabala dutela aurkeztu dute eta ez direla haien iritzien morroi; eta prest daudela iritzia aldatzeko, errealitateari gehien hurbiltzen den diskurtsoa haien eskema mentaletara gerturatzeko ariketa eginez.

Proposatutako gaien inguruan

Egia gaiaren inguruan prentsaurreko baten irudiari buruz aritu direnean, non hainbat hedabideen mikrofonoak agertzen diren, hasierako deskribapen egoki bat egin dute baina gero kostatzen zaie argudiatzea zergaitik mikrofono eta argazki kamera ugari dauden. Galdera bideratzaile irekiak egokiak ez direnean izan, ikasleek zer eskatzen zataien ez dute ulertu eta edozein erantzunaren bila joan dira, berriro ere argazkiaren deskribapena egitea izanik haien baliabiderik erabiliena. Azkenean, ikasle batek adierazi du mikrofonoak enpresa desberdinetakoak direla, baina enpresa horiek interes desberdinak dituztela ez dute aipatu (Bideoa, 01:15).

Manipulazioa gaiari buruz, komunikabide desberdinetako hainbat irudi bat jarri zaizkie. Lehenengoan agertzen dena: kameragile baten pantailan agertzen den irudiak ez dauka benetan agertzen den irudiaren antzik. Irudi honen inguruan elkarrizketaren 10 minutu behar izan dira manipulazioa hitza agertu arte. Azkenean, notizia faltsua egiteko izan daitekela esan du ikasle batek (Bideoa, 01:27). Bitartean, nahiz eta galdetu ea zein izan daitekeen kameragilearen asmoa, deskribapenera mugatzen dira; forma deskribatzen eta forma horren zergaitia zein izan daitekeen deskribatzen. Ez dute antzematen, galdera bideratzaile nahikotxo ondoren ez bada, kameragilea nahita manipulatu ari dela irudia eta egia ez den irudi bat adierazten ari dela.

Egunkarietako irudien manipulazioaren zergaitiari buruz galdetuta (*Photoshopen* bidezko manipulazioa, batez ere), interesateagoa egiteko zein dirua irabazteko egiten dutela erantzun dute. Batzutan antzematen dute egunkaria noren alde dagoen egin duen manipulazioagatik ondorioztatuta, baina ez dakite zein interes dagoen atzetik. Adibidez, Obama vs BP irudian (Bideoa, 01:42). Obamaren alboan zegoen emakume bat argazkitik kendu dute *Photoshopen* bidez, egoera dramatikoagoa egiteko, irudi mediatikoek transmititzen dituzten mezu inplizituen artean interes sozialak eta ekonomikoak daudelako frogatzen izanik.

Notizia manipulatu baten aurrean, non esaten den ikasleek atsegin duten telesail bat (*Stranger Things*) bertan behera geratu dela eta ez dutela denboraldi gehiago produzituko, ikasleak zalantzati agertu dira. Notiziaren fidagarritasuna kontrastatzeko ikasle batek *Instagramera* zuzendu gaitu, esanez *Stranger Things* telesaileko aktorea bat jarraitzen duela eta bere kontuan igotako bideo batean hurrengo denboraldiaren kapituluak grabatzen ari zela agertzen dela. Beraz, informazioa zuzenean eta lehen eskukoa jaso ahal izan du sare sozial batetik (Bideoa, 02:10), autonomia puntu bat erakutsiz interes kulturaleri dagokionean, behintzat.

Egunkarietako grafikoaren manipulazioari buruz –eta interes ekonomiko, sozial eta politikoekin estuki lotuta–, hipotesi asko botatzen dituzte, aizkora non sartu jakin gabe (Bideoa, 02:21), edo irudian zer agertzen den badakite deskribatzen baina ez dakite adierazten zergatik manipulatu duten grafikoa, zein ezkutuko interesarekin. Batzuk esaten dute badakitela, baina ez dakitela nola azaldu. Azkenean, 10 minutuz grafiko manipulatu baten inguruan hitz egiten eman ondoren, ikasle batek iruzkindu du grafikoa manipulatu dutela alderdi politiko jakin batekoek, gorago edo altuago agertzeko, hau da, beste alderdien gainera agertzeko (Bideoa, 03:11). Beste erantzun bat izan da ez duela inporta manipulazioak. Izan ere, barra diagrama batean barrak egon ezik, zenbakiak ere badaudela defendatu du (Bideoa, 03:23); horren aurrean, beste batek esan dio jendea ez dela fijaszen zenbakietan baizik eta barratan, eta jendeak bere burua manipulatzeko uzten duela (Bideoa, 03:33). Beste batek, aldiz, akats informatiko bat izan daitekeela uste du. Bitartean, sumintzen hasitako ikasle batek bere buruari esaten ez dela bidezkoa irudi bat manipulatzeko eta aldarrikatzeko errealitatearen adierazpen fidagarri eta zintzoak (Bideoa, 03:50). Manipulazioa ezin da zalatu? Galdetzen du ikasle batek, elkarrizketak aurrera doan heinean (Bideoa, 04:00). Beste batzuk badakite isunak eta indemnizazioak daudela hedabideetan iruzurtzeagatik.

Komunikabideen inguruan solasean jarraituz, telebista kate desberdinetako informatiboetako kirol saioak alderatu dituzte. *La Sexta* eta *Etbkoak*, konkretuki. Gaien aukeraketa aldetik oso desberdinak direla aitortu dute, galdera ireki batzuk egin ondoren, beti ere. Baten estiloa agresiboa dela eta, bestearena, arrunta dela esan du ikasle batek (Bideoa, 04:16). Lehiakortasuna besterik ez zaiola inporta lehenengoiari, *La*

Sextakoari. Musika aipatu dute, nolabait baliabide narratibo horren garrantzia azpimarratuz (agresibitatea eta epika iradokitzen duen musika). Polemika besterik ez duela nahi (Bideoa, 04:59) dio beste ikasle batek. Audientzia eta diruarekin zer ikusia duen argudiaketa bat egiten saiatu da beste ikasle bat: *La Sextak* ikusle gehiago behar dituela defendatzen hasten da, handiagoa delako kate moduan, baina, egia esan, argudioa hor bukatzen da (Bideoa, 05:10).

Sare sozialen inguruan, ezagutzen duten *instagramer* baten bideo bati asaldurak gaindituta harrera egiten diote, garrasika. Galdera ireki batzuk egin ondoren aitortzen dute ez dutela sinesten *instagramerrek* dioten guztia (Bideoa, 05:28), eta haien bizimoduek ez dutela aurkezten dutenaren antzik. Haien bideoak kuxkuxero hutsak direlako ikusten dutela ere aitortu dute batzuk, ikusle kopuru gehien dituzten bideotan jorratzen diren gaiak zeintzuk diren azertu dutenean (Bideoa, 05:44). Diruaren kontua baita ere agertu da, eta batzuk zalatu dute *instagramerrek* ateratzen duten dirua haientzat soilik egiten dutela (Bideoa, 06:06), inolako solidaritaterik erakutsi gabe, nahiz eta, adibidez, diru hori Afrikako mutil batzuei egindako argazkien publikazioaren bidez lortua izan. *Likeak* arrazoi desberdinak direla medio eskuratzen dituztela azaldu dute: polita delako, dirua sakelaratzeko... Honen inguruan, *instagramerrentzat likeak* ikastea baino garrantzitsuagoak direla esan dute ikasle batzuk, kezka pittin bat azalduz (Bideoa, 06:33).

Taldeko hausnarketa orokorra

Hausnarketarako amaierako denbora tartean, ikasle batek ondorioztatu du ez dugula ikusten dugun guztia sinistu behar (Bideoa, 06:42). Frogatu da ikasleek besteen iritzia entzunda gai direla haien eskema mentalei egokitzeko eta ideia berriak eraikitzeko. Pentsamendu kritikoa garatzeko orduan maila desberdinak egoteak ez du esan nahi esku-hartze desberdin bat egin behar denik ikasle bakoitzari egokituta; izan ere, ikasleak elkar elikatzen dira kideen iritzi eta argudioekin, eta era honetan elkarrizketa autoerregulatzen da. Elkarrizketa dialogikoa, beraz, pentsamendu kritikoa eragiten duten galdera irekien bidezkoa, tresna egokia dela ikusi da, parte-hartzea eta inplikazio nahikoa lortu delarik ikasleen aldetik, hausnarketa esanguratsura eraman dituenak. Gainera, hausnarketa prozesua eman denean eskema mentalak birplanteatzen dituztela frogatu da.

5. Ondorioak

Kontsumobidek (kontsumoko euskal institutoa) 2009. urtean kontsumo arduratsuen gida argitaratu zuen. Bertan agertzen diren William Bernbach publizista ipar-amerikarraren hitzak diotenez, masa-komunikabideetan lan egiten dutenek ematen diote itxura gizarteari, eta gizarte hori arrunt bihur dezakete edo zakartu. Baina hezi ere egin dezaketela onartzen du. Eta, hala bada, ikusentzunezkoen bidezko komunikazioaren balio hezitzaileari berebiziko garrantzia eman behar zaiola ondorioztatu da azterlan hau egin ondoren: edukomunikazioa hezkuntza estrategia gisa erabili beharko litzateke LHko ikasgeletan, elkarrizketa dialogikoan oinarrituta, ikasleek komunikabideen aurrean pentsamendu kritikoa aurkezteko.

Esku-hartzea, oraingoan, praktika bideratua eta dinamika isolatu moduan aplikatu da; baina, horregaitik, ikasleek edukomunikazioak eskeini ditzakeen praktika eta dinamika hauek era autonomoan barneratzeko beharrezana ikusten da, pentsamendu kritikoa garatzeko eta dekodifikazio prozesua esanguratsua egiteko. Alegia, komunikabideekiko jarrera kritiko bat aurkezteko ikasgela barruan zein kanpoan, jarrera hori nolabait ohitura bihurtzeko eta gaur egungo jendarteko bizimoduetan eragina izateko.

Irakasle moduan, beraz, helburu lehendarra izan beharko litzateke ikasleei baliabideak eskeintzea bizi garen aroan kapaz izan daitezen pantailetatik heltzen zaizkien mezuak zalantzan jartzeko eta benetan antzemateko zer lortu nahi duten mezu horiek, zein den beraien ezkutuko helburua. Irakasleen ataza, besteak beste, ikasleei beste subjektibitate posibleak aurkitzeko eta subjektibitate propioak aztertzeko ikus kulturaren inguruko esperientzia pedagogikoak eskeintzea da (Pla, 2012). Eta, honetarako, tresna egokia izan da edukomunikazioa. Edukomunikazioaren bidez, ikasleen kritikotasuna garatzen lagundu daiteke, anitza den errealitatea antzemateko eta ahalik eta egokien aztertzeko, ulertzeko eta eraldatzeko bizikidetza marko baten barne era arduratsuan, solidarioan, errespetuosoan eta enpatikoan. Osagai egokiak dira hauek, hain zuzen ere, jendarte orekatu, osasuntsu eta bidezko bat eraikitzeko.

6. Erreferentzia bibliografikoak

236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 9 zk., 2016ko urtarrilaren 15a.

Aguaded, I. (1998). La educación para la comunicación: desde el hogar a las aulas. *Comunicar*, 10, 6-8.

Aparici, R. (2010). *Educomunicación: Más allá del 2.0*. Madril: Gedisa.

Aparici, R., eta Matilla, A. G. (2010). *Lectura de imágenes* (Vol. 2). Madril: Ediciones de la Torre.

Area, M. (2012). Sociedad líquida, web 2.0 y alfabetización digital. *Aula de Innovación Educativa*, 212, 55-59.

Baraze, I. M. (2010). Consideraciones sobre las imágenes mediáticas en la educación artística: un referente para la educomunicación. *Revista Iberoamericana de Educación*, 52, 81-93.

Barbas Coslado, Á. (2012). Educomunicación: desarrollo, enfoques y desafíos en un mundo interconectado. *Foro de educación*, 10, 14.

Basterretxea, J. I., Andrieu, A., Idoiaga, P., Jiménez, E., eta Ramírez de la Piscina, T. (2010). El cristal traslúcido: grado de alfabetización audiovisual en la juventud vasca. *Congreso Euro-Iberoamericano de Alfabetización Mediática y Culturas Digitales-en*. Sevilla: Sevillako Unibertsitatea.

Bernbach, W., eta Higgins, D. (2001). *The Art of Writing Advertising: Conversations with William Bernbach, Leo Burnett, George Gribbin, David Ogilvy, Rosser Reeves*. Lincolnwood: NTC Business Books.

Blesa Aledo, P. (2006). Medios de comunicación y democracia: ¿El poder de los medios o los medios al poder?. *Sphera Pública*, 6, 87-106.

Bronfenbrenner, U. (1987). *Teoría ecológica del desarrollo humano*. Barcelona: Paidós SAIF.

Callejo Gallego, J. (2002). Observación, entrevista y grupo de discusión: el silencio de tres prácticas de investigación. *Revista española de salud pública*, 76, 409-422.

Clark, R. (1996). *Art Education: Issues in Postmodernism Pedagogy*. Reston: National Art Education Association.

Del Portillo, A. (2005). La hipnosis de las pantallas: reflexiones ante un posible despertar del telespectador. *Comunicar: Revista científica iberoamericana de comunicación y educación*, 25 (2), 4.

Duncum, P. (1996). From Seurat to Snapshots: What the Visual Arts Could Contribute to Education. *Australian Art Education*, 19 (2), 36.

Espitia Vásquez, U., eta Valderrama, C. E. (2009). Hacia una apertura política del campo comunicación-educación. *Nómadas*, 30, 164-179.

Fonturbel, R. U. (2006). Núcleos semánticos y núcleos pragmáticos en el lenguaje publicitario. *Actas del XXXV Simposio Internacional de la Sociedad Española de*

Lingüística-n (pp. 1869-1887). León: León-eko Unibertsitatea. 2018-03-01an hartuta, hemendik:

https://www.researchgate.net/profile/Raul_Urbina_Fonturbel/publication/28307699_Nucleos_semanticos_y_nucleos_pragmaticos_en_el_lenguaje_publicitario/links/557d8e1108aec87640dc5f20/Nucleos-semanticos-y-nucleos-pragmaticos-en-el-lenguaje-publicitario.pdf

Freedman, K. (2006). *Enseñar la cultura visual: curriculum, estética y la vida social del arte*. Bartzelona: Octaedro.

Freire, P. (2005). *Pedagogía del oprimido*. Madril: Siglo XXI.

García, Y. M. R. (2017). *Reconceptualización de la educación en la era digital: Educomunicación, redes de aprendizaje y cerebro: una visión desde la neurociencia cognitiva a los procesos de construcción de conocimiento en entornos digitales* (Doktoretza Tesia, UNED).

García-Ruiz, R., Ramírez-García, A., eta Rodríguez-Rosell, M. (2014). Educación en alfabetización mediática para una nueva ciudadanía prosumidora. *Comunicar*, 21 (43), 15-23.

González, J. L. (2000). Perspectivas de la “educación para los medios” en la escuela de la sociedad de la comunicación. *Revista iberoamericana de educación*, 24, 91-101.

Guinsberg, E. (2005). *Control de los medios control del hombre medios masivos y formación psicosocial*. Madril: Plaza y Valdés.

Gutiérrez, A., eta Tyner, K. (2012). Educación para los medios, alfabetización mediática y competencia digital. *Comunicar*, 19 (38), 31-39.

Hernández, F. (1997). *Cultura visual y educación*. Sevilla: Movimiento Cooperativo Escuela Popular (MCEP).

Hernández, F. (2005). ¿De qué hablamos cuando hablamos de cultura visual?. *Educação & Realidade*, 30 (2), 10-29.

Hernández, F. (2007). *Espigador@s de la cultura visual*. Bartzelona: Octaedro.

Kontsumobide (2009). Kontsumo arduratsurako gida. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2018-04-13an hartuta, hemendik: http://www.kontsumobide.euskadi.eus/contenidos/informacion/kb_pubs_mat_didac/eu_material/adjuntos/guia_consumo_publicidad_eu.pdf

López Aymes, G. (2012). Pensamiento crítico en el aula. *Docencia e investigación*. 22, 41-60.

Mirzoeff, N. (2003). *Una introducción a la cultura visual*. Bartzelona: Paidós.

Mitchell, W. J. T. (1995). Interdisciplinary and Visual Culture. *The Art Bulletin*, 77 (4), 540.

Pla, A. P. (2012). *Relaciones pedagógicas en torno a la cultura visual de los jóvenes*. Bartzelona: Octaedro.



Ramírez de la Piscina Martínez, J. M., Basterretxea Polo, J. I., eta Jiménez Iglesias, E. (2011). Estado de la alfabetización audiovisual en la comunidad escolar vasca. *Comunicar*, 36 (18), 157-164.

Robinson, K. (2011). *Redes (Nº87), El sistema educativo es anacrónico*. 2018-02-04an hartuta, hemendik: <http://www.rtve.es/alcarta/videos/redes/redes-sistema-educativo-anacronico/1044110>

Sanmartí, N. eta Oliveras, B. (2011). Leer críticamente las ideas y pruebas científicas que aportan artículos periodísticos. *Cuaderno de indagación en el aula y competencia científica-n* (pp. 54-77). Madril: MEC.

7. Eranskinak

7.1. Eranskina. Irudiekin solasean: *Power pointa*



Jarraian datozen
3 irudiak ikusteko




2 seg




ZENTZUMENAK




1 seg










KOMUNIKABIDEAK






































24 IRUDI SEGUNDOKO
(24 FPS)















Soilik egunkarietan?
Soilik teleberrietan?
Soilik irratietan?













SARE SOZIALAK DOHAINIK DIRA



- Norentzat dira datu horiek?
Hobeto esanda: Nortzuk **erosten** dituzte **datuak**? Eta... Zertarako?
- Datu pertsonalak
 - Gustuak
 - Pentsaerak
 - Bizimodua
 - ...
-
- An illustration of a diverse crowd of people of various ages, ethnicities, and genders, representing the users whose data is being collected.






Esne tontetoko bat, benetan asterisiko ikurra bat da...






... atzekaldera eramaten gaituena. Bertan jortzen du kasu honetan B6 bitamina dela sistema inmunitarioa laguntzen duena, eta ez *Lactobacillus casei* bakterioa.

consultas gratis
TAROT



806 414144
TAROT CARMEN CAMINO



HAUSNARKETA

Eskerrik asko ;)

7.2. Eranskina. Galdera irekiak

Pentsamendu kritikoa garatzen laguntzeko galdera irekien sailkaketa (López Aymes, 2012):

Mota	Galdera adibideak
1. Azalpenezkoak	Zer esan nahi duzu horrekin? Adibide bat emango zenuke? Zergaitik uste duzu hori horrela dela? Nola erabaki duzu esaten duzuna egia dela? Deskribatuko duzu irudia? Zer agertzen da? Zeintzuk elementu agertzen dira? Zein da mezua?
2. Iturriak eta susmoak esploratzekoak	Zertan datza susmoa? Zergaitik norbaitek hori esan nahiko luke? Ba al dago ezkutuko asmorik? Nola frogatu daiteke?
3. Ebidentziak eta arrazoiak aztertzeak	Zeintzuk arrazoiak dituzu esaten duzuna esateko? Zeintzuk irizpidetan oinarritzen duzu argudio hori?
4. Inplikazioak eta ondorioak aztertzeak	Zeintzuk dira jarrera jakin horren ondorioak? Ez zabiltza ondorio presazkoak hartzen ari? Kontsumituko zenuke produktu hori?
5. Ikuspegi desberdinei buruzkoak	Nola esango zenuke beste era batera? Zertan desberdintzen dira bi ideia horiek? Zerekin konparatu dezakezu? Zenbat aukera bururatzen zaizkizu? Zeintzuk zailtasunak ikusten dituzu? Zeintzuk abantailak? Nola konbentzituko zenuke zure amama? Nola azalduko zenioke zure lagunei?
6. Galderei buruzkoak	Nola lagundu gaitzake galdera horrek? Erabilgarria izan daitekeen galderarik bururatzen al zaizue?

Bestalde, bereziki ikusentzunezko produktuek dituzten elementuak aztertzeo galderak ere iradokitzen dira: Norentzat dela uste duzu? Nori zuzendua? Zergatik pertsonaiak kokatzen dira toki horietan? Zer nolako koloreak erabiltzen dira? Zein da pertsonaien jarrera? Zer gertatuko litzateke rola aldatuko bagenituzke? Koloreak eragina izan duela uste duzu? Zein irudi eta soinu jarriko zenioke? Zer eta irratirako izango balitz? Zergatik irudi eta soinu horiek? Ba al daude pertsona desberdinetarako jostailuak? Eta irudiak edo musikak? Ba al dakizu non, nortzuk eta zein baldintzetan ekoizten diren produktu horiek? Zuk egin beharko bazenu iragarkia, nolakoa izango litzateke? Konziente al zara iragarki batek dituen ezaugarri guztietaz? Zeintzuk izan daitezke elementu eta ezaugarri horiek? Noizbait iruzurtua sentitu al zara? Zergaitik izan zen badakizu? Saihestu ahal izan zenuela uste duzu? Komunikabideetan esaten den guztia sinisten duzu? Zergaitik ez/bai? Zer egin dezakezu konpontzeko? Zer da egia bat? Eta gezurra bat? Pertsona batentzat egia dena, beste batentzat gezurra izan daiteke? Zergatik gustatzen zaigu pelikula mota bat eta ez beste bat? Existitzen dira extralurtarrak? Nola jakin genezake? Non bilatu beharko genuke informazioa? Zergaitik informazio iturri horiek eta ez beste batzuk?...

